



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urriaren 29a

128. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako foru sektore publikoaren berregituratzeari buruzko (2010-2016) fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako foru sektore publikoaren berregituratzeari buruzko (2010-2016) fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako foru sektore publikoaren berregituratzeari buruzko (2010-2016) fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako foru sektore publikoaren berregituratzeari buruzko (2010-2016) fiskalizazio-txostena

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Nafarroako foru sektore publikoa (4. or.).
 - II.1. Gogoeta orokorrak (4. or.).
 - II.2. Sektore publikoa berrantolatzeko planak (5. or.).
- III.** Helburuak, norainokoa eta mugak (10. or.).
- IV.** Konklusioak eta gomendioak (11. or.).
- V.** Nafarroako foru sektore publikoa berrantolatzeko prozesuaren analisia (12. or.).
 - V.1. Entitateen kopuruaren bilakaera (12. or.).
 - V.2. Berregituratzearen eragin ekonomikoak (13. or.).
 - V.3. Berregituratzeak ukitutako eginkizunak (18. or.).
 - V.4. Berrantolaketa-planen betetzea (20. or.).
1. eranskina. Esparru juridikoa (23. or.).
2. eranskina. Ente eta erakunde publikoen zerrenda eta haien bilakaera (24. or.).
3. eranskina. Sozietate xurgatuen eta xurgatzaileen zerrenda (25. or.).
4. eranskina. Sozietate publikoen zerrenda eta haien bilakaera (27. or.).
5. eranskina. Fundazio publikoen zerrenda eta haien bilakaera (28. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak 2018ko lan-programan sartu zuen fiskalizazio txosten bat egitea foru sektore publikoaren 2010-2016 aldiko berregituratzeari buruz.

Lan hau egin da Kontuen Auzitegiarekin eta Kanpo Kontroleko Organo Autonomikoekin (OCEX) koordinatuta, eta xede du aipatutako aldi horretan sektore publiko autonomikoa berrantolatzekeo prozesuak egiaztatzea.

Sektore publikoaren berrantolatzea hasi zen 2010ean Estatuak bultzatutako esparru-akordio baten ekimenez; izan ere, akordio horren arabera autonomia erkidegoek eta autonomia-estatutua zuten hiriek konpromisoa hatzen zuten beren berrantolaketa-planak egiteko eta finantza publiko jasagarriak edukitzeko.

Lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, 2018ko maiatzetik abuztura, Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txostenak bost epigrafe dauzka, sarrera hau barne. Bigarren epigrafean Nafarroako foru sektore publikoa eta hainbat eremutan aurrera eraman diren berrantolaketa-planak definitzen dira. Hirugarren epigrafean, fiskalizazioaren helburuak, norainokoa eta mugak erakusten ditugu. Lauugarren epigrafean, konklusioak eta gomendioak azaltzen ditugu. Azkenik, bosgarrenean, prozesuei eta haien eraginei buruz egin den analisia deskribatzen dugu, bai eta haien betetze-maila ere.

Gainera, bost eranskin ditu, txostenean azaldutako datuetako batzuei buruzko informazio zehatzagoa dakartenak.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko kontseilariari eta NEKPeke zuzendari finantzarioari eta kontrolekoari azaldu zitzaizkion, kasua bazen, egokitzen jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Epea iraganda, ez dute alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak ematen dizkiegu Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Aurrekontuaren Zuzendaritza Nagusiari; Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Gobernuko Idazkaritzaren eta Araugintzaren Zerbitzuari, eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. NAFARROAKO FORU SEKTORE PUBLIKOA

II.1. GOGOETA OROKORRAK

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritakoaren arabera, honako hauek osatzen dute Nafarroako foru sektore publikoa:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.
- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak –Kontuen Ganbera eta Arartekoa–.
- Nafarroako Kontseilua eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari atxikitako erakunde autonomoak.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa-entitate publikoak.
- Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz¹.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde publikoetako fundazio publikoak².
- Sortu berriak diren beste entitate publiko batzuk, haiek sortzeko dituen xedapenak espresuki hala xedatzen badu.

Hau da, Foru Komunitateko Administrazioarekin berarekin eta Parlamentuarekin batera (beren menpeko organoak barne direla), foru sektore publikoan zuzenbide publiko eta pribatuko entitateen multzo bat sartzen da: nortasun juridiko propioa eta tresna-izaera dute; beren kudeaketan autonomoak dira; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sortu eta finantzatu ditu esleitu zaizkien xede publikoak bete ditzaten, eta administrazioaren, enpresen eta fundazioen sektore publikoan sailkatuta daude.

Honako hau da enpresen eta fundazioen sektore publikoaren magnitudea³, Foru Komunitateko Administrazioiko langileei dagokienez eta Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 2010-2016 aldian haien jarduketetarako aurreikusitako finantzaketari dagokionez:

Langileak	2010-2016 aldiko batez besteko zenbatekoa
Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako langileak	23.034
Sozietate publikoetako langileak	1.115
Ehunekoa	4,76
Fundazio publikoetako langileak	35
Ehunekoa	0,16

¹ Sozietate publikoak dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ehuneko 50eko zuzeneko zein zeharko partaidetza duenak, edo administrazio-, zuzendaritza- edo zaintza-organoetako kideen erdia baino gehiago zuzenean nahiz zeharka izendatzeko gaitasuna duenak; edo sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botoen gehiengoa dutenak.

² Fundazio publikoak dira Foru Komunitateko Administrazioak zuzenean sortu dituenak, sorrerako ondarean partaidetza gehiena jarritz, bai eta bere sorreran izaera pribatua bazuten ere, hasiera batean eskatzen ziren baldintzak ez bete-tzeagatik, geroztik baldintza horiek berenganatu dituztenak, eta horrekin batera beren gobernu organoetan administrazioaren ordezkariak gehiengoa osatzeko baldintza betetzen dutenak.

³ Bat datoz 2010-2016 aldiari dagokion batez besteko datuarekin

(euroak, milakotan)

Jarduketan finantziarioa	2010-2016 aldiko batez besteko zenbatekoa
Nafarroako Aurrekontu Orokorretako 2., 4., 6. eta 7. kapituluetakako partidak	2.580.411
Ustiapeneko diru-sarrerak eta diru-laguntzak sozietate publikoetan	58.350
Ehunekoa	2,26
Nafarroako Aurrekontu Orokorretako aktibo finantzarioetakako partidak	75.230
Sozietate publikoentzako kapital-ekarpenak	14.588
Ehunekoa	19,39
Nafarroako Aurrekontu Orokorretako 4. eta 7. kapituluetakako partidak	1.487.824
Ustiapeneko diru-sarrerak eta diru-laguntzak fundazio publikoetan	6.748
Ehunekoa	0,45

Sozietate eta fundazio publikoetako langileen egiturak eta egitura finantzarioak, emandako datuen arabera, eragin eskasa dute, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen langile- eta aurrekontu-magnitudeen osotasunarekin alderatuta.

II.2. SEKTORE PUBLIKOA BERRANTOLATZEKO PLANAK

II.2.1. Sektore publikoa berrantolatzeako esparru-akordioak

Krisi ekonomiko larriaren ondorioz azken urteetan izan diren inguruabar ekonomikoek beraiekin ekarri zuten ondoz ondoko erreformak egiten hasia sektore publikoaren eremuan, finantza publikoari eusteko helburu nagusiarekin; erreforma horiek, besteak beste, eragina izan zuten administrazio publikoetako egituren dimentsioak finkatzerakoan.

Horretarako, Politika Fiskal eta Finantzarioaren Kontseiluak, besteak beste, honako ezaugarriak dituzten bi esparru-akordio onetsi zituen:

- Autonomia-erkidegoekiko eta autonomia-estatutua duten hiriekiko martxoaren 22ko 1/2010 esparru-hitzarmena, 2010-2013 aldiko finantza publikoen jasangarritasunari buruzkoa. Akordio horrek, beste konpromiso batzuen artean, ezartzen du arrazionalizatzeko-plan autonomikoak onetsiko direla erkidego bakoitzaren sektore publikoen egituren gainean, gastu publikoaren efizientzia hobetzeko eta gastu hori gutxitzeko. Halakoen hasierarako erreferentziako data gisa 2010eko uztailaren 1a ezarri zen.

- Urtarrilaren 17ko 5/2012 esparru-akordioa, zeinaren bidez berregituratzeen 2011ko ekainaren 1eko balantzea egiten baita eta beste konpromiso batzuk ezartzen baitira sektore publiko autonomikoak berrantolatzeako. Halaber, esparru-akordio horretan erabaki zen Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioan autonomia-erkidegoen menpeko enteen inbentario bat sortzea, emandako informazio autonomikoa oinarritzat harturik; informazio hori, izan ere, berrantolaketan neurrien plan batekin eta prozesu hori dela-eta espero diren ondoreekin batera bidali beharko da.

Foru Komunitateko Administrazioak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari aipatutako akordioetan aurreikusitako informazioa igorri dio, hartutako konpromisoak betez.

Dauden entitateei eta haien bilakaerari buruzko informazioa, aipatutako inbentarioan ageri diren berrantolaketaren ondoriozkoa, HAP/2105/2012 Aginduan ezarritako irizpideekin egiten da⁴; irizpide horiek, ordea, ez datoz bat gure fiskalizazioaren norainoko subjektiboarekin, eta gure txostenean jasotakoek beste ente-zerrenda bat dakar.

⁴ Aurrekontu-egonkortasun eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzen dituen agindua.

II.2.2. Nafarroako foru sektore publikoa berrantolatzeko planen analisia

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak emandako informazioaren zati izan eta ezarri diren neurrien multzoa, ondoren garatzen duguna da:

ADMINISTRAZIOAREN SEKTORE PUBLIKOA

Bilakaera honako taula honetan ageri da:

Ente publikoak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	2	1	1	1	1	1	1
Erakunde autonomoak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	12	11	9	9	9	8	8

2. eranskinean, ente eta erakunde autonomoen xehetasunak ageri dira.

Berrantolatzea honako informazio honen arabera egin da:

Ezeztatutako entitatea	Berrantolatzeko modua	Ekitaldia	Arau xedapena	Eginkizunen jarraipena bere gain hartzen duen entitatea
Ente publikoak				
Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua	Az kentzea	2011	15/2011 Foru Legea	Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua ⁵
Erakunde autonomoak				
Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa	Az kentzea	2011	142/2011 Foru Dekretua.	Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua ⁶
Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua	Az kentzea	2012	68/2012 Foru Dekretua.	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua
Nafarroako Kirol Institutua Nafarroako Gazteriaren Institutua	Baterakuntza	2012	35/2012 eta 73/2012 foru dekretuak	Gizarte Politiketako Departamentuko Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua ⁷
Nafarroako Larrialdietako Agentzia	Az kentzea	2015	197/2015 Foru Dekretua.	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

Entitate horiek ezabatzea erabaki da organo eskudunak onetsitako arau-xedapenen bitartez, Foru Komunitatearen esparru juridikoaren terminoetan. Ez dago jasota administrazioaren sektore publikoa berrantolatzeko plan bat onetsi denik, prozesu horren plangintzarako tresna gisa.

⁵ Gaur egun, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

⁶ Gaur egun, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua

⁷ Gaur egun, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua

ENPRESEN SEKTORE PUBLIKOA

Bilakaera honako taula honetan ageri da:

Sozietate publikoak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
NEPKren sozietate nagusia	1	1	1	1	1	1	1
Menpeko sozietate publikoak							
> % 50eko zuzeneko partaidetzako sozietate publikoak	24	13	13	12	11	11	12
> % 50eko zeharkako partaidetzako sozietate publikoak	14	6	5	4	4	4	4
Guztira	39	20	19	17	16	16	17

Enpresen sektore publikoa berrantolatzeko prozesua Enpresa Korporazio Publikoa SMP (aurrerantzean, NEPK) sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearekin hasi zen. Arau hori Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeak ezarri zuen gaikuntzari dagokio, zeren eta jo baitzuen enpresen ondare publikoaren berregituratzea Foru Komunitateko Administrazioaren enpresen ondare publikoaren barneko berrantolaketa-modu bat zela.

NEKP 2009ko azaroaren 4an eratu zen, pertsona bakarreko sozietate mugatu gisa, eta Foru Komunitateko Administrazioak hartu zuen haren partaidetza osoa. Enpresen sektore publikoa, horrenbestez, 2010ean, korporazioak berak eta NEKPren menpekoak ziren 38 sozietate publikok osatzen zuten.

Honako hauek dira NEKP sortu ondoren onetsi diren berrantolaketa-planak:

- Enpresen sektore publikoaren berrantolatzeko eta berregituratzeko I. Plana, Nafarroako Gobernuaren 2010eko abenduaren 20ko erabakiaz onetsia⁸.
- Enpresen sektore publikoa antolatzeko II. Plana, NEKPren Administrazio Kontseiluak 2013ko maiatzaren 13an onetsia.

Bi prozesu horiei buruz honako hau aipatu behar dugu:

- Berregituratzea bi fasetan aplikatu da eta lehendik zeuden sozietateen xurgatze bidezko fusioko merkataritza-operazioen bitartez egin da. Sozietate horietan deitura-aldaketak edo eraldaketak gertatu direnez, sozietate anonimo izatetik sozietate anonimo bihurtzekoak, ez dira sozietate sortu berritatz hartzen.

- NEKPren Administrazio Kontseiluak onetsitako bigarren antolamendu-planari buruzko informazioa Parlamentuko batzordean eman zen, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak NEKPko zuzendari nagusiarekin batera 2013ko ekainean egin zuten agerraldian. 8/2009 Foru Legea partzialki aldatzen duen abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legeak, bigarren xedapen iragankorrean, honako hau ezarri zuen: *“Betiere, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren Administrazio Kontseiluak Sektore Publikoa Berregituratzeko II. Plana igorri beharko dio Nafarroako Parlamentuari, eztabaidatu eta onets dezan”*.

Aipatutako bi antolamendu-planen ondoriozko berregituratzeaz gainera, beste eragiketa batzuk egin dira, sozietate publikoen kopuruaren bilakaeran eragina izan dutenak; honako hauek dira:

- 2012an Tuckland Footwear SL sozietatea azkendu zen.
- 2013an Burnizko SA azpitaldea saldu zen.
- 2016an, Sociedad TRACASA Instrumental SL sortu zen. Sozietate hori sortu zen jarraitutasuna eman ahal izateko Nafarroako Foru Komunitateak TRACASARI egiten zizkien enkarguei; izan ere, TRACASAK, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Kontratazio Publikoari buruzko 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EE Zuzentarauaren ondorioz, Foru Komunitateko Admi-

⁸ 8/2009 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorrak ezarritako baldintza.

nistrazioaren bitarteko propioaren izaera galdu behar zuen⁹. Sozietate horren sorrerak berekin ekarri zuen TRACASako 285 langile subrogatzea.

3. eranskinean, egindako bi fusio-prozesuak zehazten dira, eta 4. eranskinean, berriz, sozietateen bilakaeraren banakako xehakatzeari ageri da.

NEKPren partaidetzetatik datorren mapa, honako hau da 2016ko itxieran:

ZUZENEAN PARTE HARTUTAKO SOZIETATEAK, KAPITAL SOZIALAREN EHUNEKO 50ETIK GORAKO PORTZENTAJEAREKIN		
Ondoriozko enpresa publikoa	Partaidetzaren ehuneko	Jarduera ekonomikoa
1. Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASU-VINSA)	100	Lurzorua eta etxebizitza
2. Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
3. Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	100	Nekazaritza-elikagaiak
4. Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	100	Ingurumena
5. Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA)	100	Tokiko azpiegiturak
6. Navarra Infraestructuras Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	100	Azpiegitura tematikoak, kulturakoak, aisiakoak eta kirolekoak
7. Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas SA (CNAI)	100	Hezkuntza eta talentua
8. Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
9. Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
10. Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	100	Katastroa, kartografia eta lurralde-informazioko sistemak
11. Trabajos Catastrales Instrumental SL (TRACAS INS)	100	Katastroa, kartografia eta lurralde-informazioko sistemak
12. Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	100	Ekonomiaren sustapena eta finantzaketa

ZEHARKA PARTE HARTUTAKO SOZIETATEAK, KAPITAL SOZIALAREN EHUNEKO 50ETIK GORAKO PORTZENTAJEAREKIN		
Enpresak	Partaidetzaren ehuneko	Jarduera ekonomikoa
13. Start Up Capital Navarra SA	59,5	Enpresak sustatu eta bultzatzea
14. Salinas de Navarra SA	76	Gatza eta haren deribatutako produktuak, prestatu eta merkaturatzea
15. Potasas de Subiza SA	100	Abonu mineralak eta potasio- eta sodio-gatzetatik deribatutako produktuak
16. Natural Climate Systems SA	100	Higiezinen sustapena, efizientzia energetikoko irizpideekin

⁹ 2014/24/EE Zuzentarauaren 12. artikulua ezartzen du pertsona juridiko horren jardueren % 80 baino gehiago egin behar izatea kontrola egiten dien adjudikazio botereak ardurapean utzi dizkien zereginen jardunean.

FUNDAZIOEN SEKTORE PUBLIKOA

Fundazioen bilakaera ondoko taulan ageri da:

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Fundazio publikoak	7	7	7	7	6	4	4

5. eranskinean, fundazioen zerrenda eta haien bilakaera ageri dira.

Nafarroako Gobernuak, 2013ko maiatzean, 2013-2015 Ekintza Plana onetsi zuen; hartan, Administrazioa erreformatzeko hainbat neurri erabaki ziren, egitura gutxitzeko eta efizientzia handitzeko; horien artean, fundazio publikoen berrantolatzea edo desagertzea daude.

Plan hori aplikatuz, Nafarroako Gobernuaren 2014ko martxoaren 20ko Erabakiaz¹⁰, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren fundazio jakin batzuen estatutuak azkentzeko edo aldatzeko prozeduren hasiera onetsi zen.

Honako hauek dira geroztik hartu diren erabakiak eta haien emaitza:

Ezeztatutako entitatea	Berrantolatze-mota	Ekitaldia	Xedapena	Eginkizunen jarraipena bere gain hartzen duen entitatea
Fundazio publikoak				
Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua	Az kentzea	2014	Gobernuaren Erabakia, 2014ko maiatzaren 28koa	Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia
Energia Berriztagarrien arloko prestakuntza	Az kentzea	2015	Patronatuaren 2015eko maiatzaren 18ko erabakia eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren 156/2015 Foru Aginduaren bidezko onespena.	CENIFER (Centro Privado con reconerreferentzia nazionaloko zentroa)
Navarra para la Excelencia	Estatuen aldaketa, fundazio pribatu bilakatzeko	2015	Gobernuaren 2014ko abenduaren 29ko erabakia.	Fundazio pribatua

¹⁰ Yesa, Valle de Erro-Roncesvalles, Itoiz-Canal de Navarra eta Centro de Recursos Ambientales fundazioak ageri dira erabaki horretan eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren informazioan. Horiek ez dira fiskalizatuko lan honetan, zeren eta ez baitira fundazio publikotzat hartzen.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Honako hauek dira lan honen helburuak:

- Egiaztatzea enteak azkentzeko jarraitutako prozesua esparru juridikoaren eta ezarritako plangintzaren arabera den.
- Jatorrizko beharizana aztertzea eta, kasua bada azkendutako entearen sorreran xede zen jarduerari edo eginkizunari eustea beste organo edo entitate autonomiko baten bitartez.
- Nafarroako foru sektore publikoaren berregituratze-neurri horien eragin ekonomikoa aztertzea.
- Azkendutako enteetako aktiboen eta pasiboen zertarako egiaztatzea.

Fiskalizazioaren eremu subjektiboak Nafarroako foru sektore publikoa osatzen duten eta azkenduta dauden enteak hartzen ditu; zehazki, aholku-kontseiluak, erakunde autonomiak, sozietateak eta fundazio publikoak.

Eremu objektiboa bat dator enteen azkentze-prozesuen analisiarekin eta haien eragin ekonomikoekin.

Fiskalizazioak 2010-2016 aldia hartu du, zeren eta sektore publikoa berrantolatzeko prozesua 2010eko ekitaldian hasi baitzen, 1/2010 esparru-akordioa onestearekin, eta 2017ko urtarrilaren 1ean amaitu baitzen, orduan jo baitzuen Politika Fiskalaren eta Finantzarioaren Kontseiluak beteta zeudela aipatutako akordioan eta geroko 5/2012 esparru-akordioan arlo horretarako ezarritako aginduak.

Gure lanak muga batzuk izan ditu, hain zuzen ere administrazioaren sektore publikorako arrazionalizazio-plan berriazkorik ez egotearekin lotutakoak.

Gure lana egin da sektore publikoaren fiskalizatorako oinarritzko printzipioei –hain zuzen ere kanpoko kontroleko erakundeek hartutakoei– jarraituz, eta, zehazki, fiskalizazio operatiboaren oinarritzko printzipioei buruz ISSAI-ES 300 arauan ezarritakoei jarraituz.

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanaren ondorio nagusiak aurkezten ditugu, bai eta egokitatzat jotzen ditugun gomendioak ere:

- Antolamendu-prozesuak, oro har, aurreikusitako arau-xedapenen arabera izapidetu dira. Enpresen sektore publikoa antolatzeko II. Planari dagokionez, ez dago jasota Nafarroako Parlamentuak onetsi izana, geroztik onetsitako lege batek eskatzen zuen bezala, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko ordezkariak Parlamentuko egoitzan hura azaldu ondoren.

- Enpresen sektore publikoaren berrantolaketa helburu zehatzetan oinarritutako bi antolaketa-planetan oinarritu da; helburu horiek, oro har, kuantifikagarriak dira, horretarako ezarri diren eta haien egiaztatzea bideratu duten adierazleen bitartez; alderdi horiek, ordea, ez dira jaso aztertutako gainerako sektore publikoetan, dela antolaketa-planik ez dagoelako, administrazioaren sektore publikoaren kasuan, dela helburu kuantifikagarriak eta ebaluagarriak ez dagoelako, fundazioen sektorearen kasuan.

- Administrazioaren sektore publikoan zeuden bi kontseiluetatik bat ezeztatu da –ehuneko 50eko gutxitzea da hori–, bai eta 12 erakunde autonomoetatik lau ere –ehuneko 33ko gutxitzea– Azkendutako enteetako langileak eta haiek aurrera eramaten zituzten eginkizunak Foru Komunitateko Administrazioako hainbat departamentuk eta erakunde autonomo batek hartu dituzte beren gain.

- Enpresen sektore publikoan, berrantolaketaren aurretik zeuden 39 sozietateetatik 22 azkendu dira: ehuneko 56ko gutxitzea da hori. Berrantolaketa horrek berekin ekarri du 224 langile gutxiago egotea, eta hori ehuneko 17ko gutxitzea da. Azkendutako sozietate publikoek esleituta zeuzkaten jarduerak geroztik sozietate xurgatzaileek bete izan dituzte. Sozietate xurgatzaile horiek arloz arloko zenbait politikaren inguruan bildu dira, antolamenduko eta langileriako egitura txikiagoarekin.

- Fundazioen sektore publikoan, 7 fundazioetatik hiru ezeztatu dira; horrek ehuneko 43ko gutxitzea ekarri du. Azkendutako hiru fundazioetatik, baten eginkizunak baizik ez ditu hartu Foru Komunitateko Administrazioak berak. Gainerako bien jarduerak eremu pribatura eraman dira.

- Enpresen sektore publikoan ez bezala, administrazioaren eta fundazioen sektoreetan ez dago jasota zein eragin ekonomiko gertatu diren eginkizunak kendu eta beste eremu batzuetan berrantolatzearen ondorioz.

Nafarroako foru sektore publikoaren aurrezkiak direla-eta kalkulatu den zenbatekoa, enpresen sektore publikoak eman duena eta antolaketa-prozesuetatik heldu dena, behin Ganbera honen iritziz egin beharrekoak ziren doikuntza batzuk egin ondoren, 32,57 milioi eurokoa da.

- Erakunde autonomoen aktiboak eta pasiboak dagokienez eta ezeztatutako fundazio publikoari dagokionez, azkendutako entearen eginkizunak beren gain hartu dituzten Foru Komunitateko Administrazioako departamentuei eta erakunde autonomoari atxiki zaizkie.

- Xurgatutako sozietate publikoen aktiboak eta pasiboak, 2011ko, 2013ko eta 2014ko ekitaldietako auditoria-txostenetan jasota ageri den moduan, blokean transmititu zaizkie sozietate xurgatzaileei, zeren eta eskubide eta eginbehar guztietan oinordetza unibertsala gertatu baita.

- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak egindako bi berrantolaketa-planetan nahiko bete dira programatutako epean aurreikusita zeuden helburuak.

Gure gomendioak:

- *Etokizuneko berrantolaketa-prozesuetan plangintza modu integratu eta bateratuan egitea, eta plangintza hori gero arloz arloko banakako planen bitartez garatzea.*

- *Administrazioaren eta fundazioen eremuetako berrantolaketa-planek helburu zehatz, kuantifikagarri eta ekonomikoki ebaluagarriak ere jaso beharko dituzte.*

- *Organo eskudunak berrantolaketa-planak onestea, horretarako onesten diren arauak hori eskatzen dutenean.*

V. NAFARROAKO FORU SEKTORE PUBLIKOA BERRANTOLATZEKO PROZESUAREN ANALISIA**V.1. ENTITATEEN KOPURUAREN BILAKAERA**

Foru sektore publikoko entitateen multzoak 2010-2016 aldian izan duen bilakaera honako hau izan da, txosteneko II.2 atalean deskribatutako prozesuen arabera:

- Entitateen tipologia

Entitateak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2016/10 aldea	Aldea (%)
Ente publikoak	2	1	1	1	1	1	1	1	-50
Erakunde autonomoak	12	11	9	9	9	8	8	-4	-33
Sozietate publikoak	39	20	19	17	16	16	17	-22	-56
Fundazio publikoak	7	7	7	7	6	4	4	-3	-43
Guztira	60	39	36	34	32	29	30	-30	-50

- Aldeei buruzko xehetasunak, entitate motaren arabera

Entitateen aldea	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Ente publikoak	2	1	1	1	1	1	1
Altak							
Bajak		-1					
Erakunde autonomoak	12	11	9	9	9	8	8
Altak			1				
Bajak		-1	-3			-1	
Sozietate publikoak	39	20	19	17	16	16	17
Altak		1					1
Bajak		-20	-1	-2	-1		
Fundazio publikoak	7	7	7	7	6	4	4
Altak							
Bajak					-1	-2	
Guztira	60	39	36	34	32	29	30

Azken batean, berrantolaketa-prozesuek ehuneko 50eko egiturazko murriztea ekarri dute sektore publiko instrumentalean, oro har, zeren eta 2010ean zeuden 60 entitateetatik 30 ezeztatu baitira.

V.2. BERREGITURATZEAREN ERAGIN EKONOMIKOAK

V.2.1. Administrazioaren sektore publikoa

Az kentze-erabakien oinarri izan diren arau-xedapenek, 15/2004 foru Legearen arabera, honako hauek ezartzen dituzte: langileen destinoa eta ondasun, eskubide eta eginbeharren multzoa, az kentzearen ondorioa dena, txosteneko II.2 atalean aipatu diren departamentuei eta erakunde autonomoari atxikitzeko araubidea.

Gure berrikuspena egin ondoren, honako hau adierazi behar dugu:

- Ondare Zerbitzuan ez dago jasota atxikipen-aldaketen erregistroa.
- Ez dago jasota ezeztatutako organismoetatik heldutako balizko eragin ekonomikoaren zenbatespenik.

V.2.2. Enpresen sektore publikoa

V.2.2.1. Alderdi orokorrak eta metodologia

Guztira zenbatetsi den aurrezki eta haren denborazko bilakaera honako hauek izan dira, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari igorritako informazioaren arabera:

(euroak, milakotan)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Aurrezkiak	5.714	10.723	38.541	5.909	3.353	0	64.240

NEPKren arabera, honako hauek dira berriaz berrantolatze-planetatik etorri diren aurrezkiak:

(euroak, milakotan)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Aurrezkiak, Ministerioari igorritako informazioaren arabera	5.714	10.723	38.541	5.909	3.353	0	64.240
Burnizko Azpitaldearen eragin ekonomikoa			-29.575				-29.575
2012ko aparteko ordainsariaren itzulketaren ondoriozko desaurrezkia						-1.215	-1.215
Berrantolatze-planetako berriazko aurrezkiak	5.714	10.723	8.966	5.909	3.353	-1.215	33.450

Zenbait alderdi aipatu behar ditugu:

- Aurrezkiaren kontzeptuari eta bera kalkulatzeko prozedurari buruzko irizpide homogeneorik ez dagoenez, NEKPk metodologia bat formulatu zuen, zeinak, dokumentatuta dagoenez eta euskarria badenez, aukera eman baitigu egindako zenbatespenak egiaztatu eta konprobatzeko.

- SODENAK Burnizko SA azpitaldean egin duen desinbertsioa, 29,57 milioi euroko aurrezki bat ekarri duena, ez dator bat antolaketa-planen inongo berriazko neurriekin; hori dela eta, eta ministerioari igorritako informazioaren zati bat izatea eragotzi gabe, gure txostenean ez da jaso berrantolaketatik heldutako aurrezki gisa.

- 2012an kendu zen aparteko ordainsariaren itzulketa heldu da Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko Administrazioeko langileentzat 2015eko abenduan onetsitako neurri bat aplikatetik; neurri hori sozietate publikoetako langileei ere zabaldu zitzaion. 2016eko ekitaldiaren amaieran ehuneko 51 itzulita zegoen. Fiskalizatu ez diren 2017ko eta 2018ko ekitaldietan gainerako ehuneko 49a itzuli zen.

Aurreko gaien xehetasunak emanda, aurrezkien kalkulua bi plan desberdinetan eta bi fasetan egin da:

• I. fasea (2010-2012). Lehenengo fase horretan, I. berrantolaketa-plana betearaziz, bi neurri mota bereizten dira:

a) Langileriaren arloko aurrezkiak. Langileen kopurua murrizteko neurrietatik heldu den aurrezkiak plantillan ekitaldien artean gertatutako aldeari batez besteko kostua aplikatuz kalkulatu da¹¹.

b) Kostu operatiboetan izandako aurrezkiak. Oro har, kanpoko zerbitzuetako kontabilitate-kontuan gertatutako gastu-aldeengatik lortu zen. Zenbait sozietatetan diru-sarrerak eta gastu jakin batzuk lotzen dituen adierazle bat erabili da, aldien artean gertatutako jarduera-aldaketa kontuan hartuta.

• II. fasea (2013-2015). Bigarren fasean, II. antolaketa-plana betearazterakoan, hiru neurri-mota bereizten dira:

a) Langileriaren arloko aurrezkiak. Aurreko fasean plantillan gertatutako aldean ondoriozko batez besteko kostuaren kalkulua egin zen; fase honetan, ordea, aurrezkiak ezarri dira plantilla murrizteko hartutako neurrietako bakoitzaren kostu zehatza hartuta.

b) Kostu operatiboetan izandako aurrezkiak. Diru-sarrerak eta gastuak lotzen dituen adierazlea zehaztu da, sozietate batzuen errealitateari egokitzuz.

c) Beste neurri batzuk; honako hauek, besteak beste: zorra birfinantzatzea, Los Arcosko Zirkuituaren kudeaketa kanpoan kontratatzea eta zuzendaritza-kargudunen ordainsariak aldatzea.

Hurrengo taulan, 33,45 milioi euroko kalkuluaren laburpen bat xehakatzen dugu, neurri-motaren arabera multzokaturik:

		(euroak, milakotan)
		Guztira
1.	Langileriaren arloko aurrezkiak	9.045
2.	Kostu operatiboetako aurrezkiak	20.402
3.	Aurrezkietako beste neurri zehatz batzuk	5.218
	SODENA- Zorraren birfinantzatzea	3.039
	CAT- Zorraren birfinantzatzea	642
	NDO- Los Arcosko Zirkuitukoak kanpoan kontratatzea	1.200
	Kontseilarien ordainsarien aldaketa	337
A.	Aurrezkiak, guztira	34.665
B.	Desaurrezkiak, guztira	-1.215
	Aparteko soldataren ondoriozko desaurrezkia (% 51)	-1.215
C.	Aurrezkiak, guztira (A+B)	33.450

¹¹ Honako eragiketa hau eginez kalkulatu da: langileen gastua zati ekitaldiaren amaierako batez besteko plantilla.

V.2.2.2. Langileriaren arloko aurrezkiak

Honako hau da informazioa:

- Langileriaren bilakaera¹²

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2016/10 aldea	Aldea (%)
Langileen batez besteko kopurua	1.283	1.208	1.140	1.046	1.018	1.054	1.059	-224	-17%

- Ekitaldien araberako aurrezkiak

(euroak, milakotan)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Langileriaren arloko aurrezkiak	1.704	3.980	1.343	1.096	922	0	9.045

- Aurrezkiak, faseka multzokaturik

(euroak, milakotan)

	I. fasea (2010-2012)	II. fasea (2013-2015)	Guztira
Langileriaren arloko aurrezkiak	5.684	3.361	9.045

NEKPren arabera, langileriaren arloko aurrezkiak plantillen birdimentsionatze baten gisara ulertu behar dira. 2010eko ekitaldira arte, sozietate publikoetan aldi baterako kontratatutako langileen portzentajea oso txikia zen; hori dela eta, ezin zitzaizkien egokitu aurreikusita zeuden fakturazio-gutxitze garrantzitsuei. Behin birdimentsionatzea eginda, langileen edozein kontratazio NEKPko Giza Baliabideen arloak aztertzen ditu, eta justifikazioa izaten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuek egindako enkargu berriak edo beste entitate batzuek finantzatutako proiektu berriak; hori dela eta, plantilla-handitze horiek ez dira desaurrezki moduan hartu.

Sozietate desberdinetan hartu diren laginak aztertuta –I. fasean kalkulaturako aurrezkien ehuneko 81 egiaztatu dira eta II. fasean kalkulaturakoen ehuneko 78–, egiaztapenen emaitzak arrazoizkoak dira, eta ez da alde aipagarriarik aurkitzen, honako doikuntza hauek izan ezik:

a) Foru Komunitateko Administrazioiko langile funtzionarioak, sozietate publikoetako langileen artean sartuta¹³ zeudenak eta antolatze-prozesuan beren jatorrizko lanpostuetara itzuli direnak. Horrek enpresen sektore publikoari aurrezkiak ekarri badio ere, gure ustez, foru sektore publikoaren osotasuna hartuta, Foru Komunitateko Administrazioan ordeztutako langileen gastuan aurrezki bat besterik ez du ekarri; horrenbestez, kalkulaturako zenbatekoan doikuntza negatibo bat egiten dugu, 0,59 milioi eurokoa.

b) GANeko 17 langileren kolektibo bat kaleratzeak 0,60 milioi euroko aurrezkiak ekarri du guztira. NEKPren ustez, aurrezkiak soilik 0,31 milioi eurokoa izan da, eta kopuru hori 2015eko ekitaldiari dagokio. Aldeari dagokion aurrezkiak gehitu beharra dago, ordea; hori dela eta, 0,29 milioi euroko doikuntza positiboa egiten dugu.

¹² NEKPk emandako informazioa

¹³ Zerbitzu-eginkizunetan edo eszedentzian zeuden langileen egoerak dira, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren baldintzetan.

V.2.2.3. Kostu operatiboetako aurrezkiak

Atal honetan hartutako neurriek, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari igorritako informazioan jasota ageri den bezala, 20,4 milioi euroko aurrezkiak ekarri dute. Fusio-prozesuetatik heldu diren kostuen berrantolatzean oinarrituta daude, bai eta erosketa-prozeduren ezarpenean ere, nagusiki hornidurei buruzko esparru-akordioen bitartez eta erosketak baimentzeko, gainbegiratzeko eta kontrolatzeko prozesuen bitartez. Neurri horiek bat datoz NEKPk onetsitako bi berrantolaketa-planetan aurreikusitako kostu-gutxitzearen helburuekin.

17 milioi euroko zenbatekoa egiten duen lagin bat hartuta –kalkulatutako aurrezkiaren ehuneko 84 egiten du–, egindako egiaztatzeen emaitza arrazoizkoa da, eta ez da alde aipagarriarik aurkitu.

V.2.2.4. Bestelako neurriak

Hona xehetasunak:

(euroak, milakotan)

Neurriak	Guztira
SODENA- Zorraren birfinantzatzea	3.039
CAT- Zorraren birfinantzatzea	642
NDO- Los Arcosko Zirkuitukoak kanpoan kontratatzea	1.200
Kontseilarien ordainsarien aldaketa	337
Aparteko soldataren ondoriozko desaurrezkia (% 51)	-1.215
Guztira	4.003

Neurri guztiak aztertu ditugu, eta uste dugu kalkuluak arrazoizkoak direla, honako salbuespen hauekin:

- SODENaren eta CATen zorraren birfinantzatzean doikuntza batzuk egin behar dira; honako hauek, hain zuzen:

a) NEKPk zorraren baldintzen aldeek eragindako aurrezkiak kalkulatu zuen, 12 hilabeteko aldi baterako. Iberdrolaren akzioen salmenta-eragiketaren eragina kontuan hartuta, eta aintzat hartuz birfinantzatzearen dataren eta zorraren zati bat akzioak salduz ezereztu zeneko dataren arteko aldia zortzi hilabetekoa izan dela, uste dugu NEKPk konputatutako urteko alditik gainerako lau hilabeteak kendu beharko lirakeela; kentze horrek berekin dakar 0,61 milioi euroko doikuntza negatiboa egitea.

b) SODENak eta CATek beren zorpetzearen zati bat murriztu zuten kapital-zabalkuntza baten bidez lortutako likidezarekin. Zabalkuntza hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak finantzatu zuen NEKPk egindako ekarpen finantzario batekin. Gure ustez zuzena bada ere sozietate horietan aurrezki gisa hartzea zama finantzarioa txikiagoa izatea, ordaindu behar ez dena, gure ustez foru sektore publikoarentzat aurrezki ez dago; hori dela eta, doikuntza negatibo bat egiten dugu Korporazioak kalkulatuak zenbateko berak hartuz, alegia, 1,2 milioi euro SODENan eta 0,29 milioi euro CATen.

- Aparteko ordainsariaren itzulketa, 1,21 milioi eurokoa. Horretan, gure ustez, doikuntza bi-koitza egin beharra dago:

a) NEKPk egindako aparteko soldataren desaurrezkia kentzea, zeren eta ez baitagokio inongo antolaketa-neurriari.

b) 0,31 milioi euroko aurrezki handiagoa gehitzea, kontuan hartuz NEKPk 2012an egin zuen aurrezki-kalkuluan ordainsarien oinarri txikiagoa ageri zela, zeren eta 13 ordainsari hartu baitziren kontuan, 14 hartu beharrean.

Egindako azterketaren arabera, egiten ditugun doikuntza guztiak, enpresen sektore publikoan eragina dutenak eta foru sektore publikoan eragina dutenak bereiziz, honako taula hauetan ageri dira xehakaturik:

(euroak, milakotan)

NEKPren berariazko doikuntzen zerrenda	Zenbatekoa
Berregituratzearen ondoriozko doikuntza: GANeko 17 langile	294
SODENAREN birfinantzatzea, Iberdrolaren akzioak salduz	-612
Aparteko ordainsariaren desaurrezkiaren doikuntza (% 51)	1.215
Kaleratutako langileei aparteko ordainsaria itzultzearen ondoriozko aurrezkiaren doikuntza	306
NEKPren doikuntzak, guztira	1.203

Doikuntzen zerrenda, foru sektore publikoa kontuan hartuta	Zenbatekoa
Langile funtzionarioen doikuntza	-594
SODENAREN birfinantzatzea, kapital-zabalkuntza bidezkoa	-1.202
CATEN birfinantzatzea, kapital-zabalkuntza bidezkoa	-291
Foru sektore publikoko doikuntzak, guztira	-2.087

V.2.3. Fundazioen sektore publikoa

“Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua” fundazioa azkentzeko erabakian, ondasunak, eskubideak eta betebeharrak txosten honetako II. epigrafean aipatutako departamentuari atxikitzeko araubidea ageri da.

Hala eta guztiz ere, gure azterketa egin ondoren, honako hau aipatu behar dugu:

- Ondare Zerbitzuak informatzen du ez dagoela Fundazioari aurrez atxikitako ondasun edo eskubideen erregistrorik.
- Ez dago jasota antolatze-prozesutik heldutako balizko eragin ekonomikoen kalkulurik.

V.2.4. Nafarroako foru sektore publikoko aurrezkiak

Sektoreen araberako aurrezkien eta aintzat hartu ditugun doikuntzen egoera metatua ondorengo taulan ageri dena da:

Aurrezkiak, sektoreen arabera	Zenbatekoa
Administrazioaren sektore publikoa	Ez dago jasota
Enpresen sektore publikoa	33.450
Fundazioen sektore publikoa	Ez dago jasota
Aurrezkiak, guztira	33.450
Doikuntzak	
-NEKPn egindako doikuntzak	1.203
-Foru Komunitateko Administrazioan egindako doikuntzak	-2.087
Nafarroako foru sektore publikoko aurrezkiak, guztira	32.566

Azken batean, proposatutako doikuntzak eginda, egiaztatu da Nafarroako foru sektore publikoan kalkulaturako aurrezkiak, berrantolatze-prozesuen ondoriozkoa, 32,57 milioikoa dela, eta enpresen sektore publikotik dator guztia.

V.3. BERREGITURATZEAK UKITUTAKO EGINKIZUNAK

- Administrazioaren sektore publikoa

Entitatea	Berrantolaketaren aurreko eginkizunak	Berrantolaketaren ondorengo eginkizunak	Entitatea
Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua	Ikus-entzunezkoen arloko jarduera Nafarroan	Ikus-entzunezkoen arloko jarduera Nafarroan	Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua ¹⁴
Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa (EVENA)	-Enologiaren eta mahastizaintzaren arloko aholkularitza -Ardogintzaren arloko ikerketa	Ardogintzaren eta mahastizaintzaren arloetako esperimentazioa eta ikerketa	Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentua ¹⁵
Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI)	Nafarroako funtzionario publikoen prestakuntza eta ikaskuntza	Nafarroako funtzionario publikoen prestakuntza eta ikaskuntza	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua
Nafarroako Gazteriaren Institutua (NGI)	Gazteentzako antolamendua eta jarduerak	Kirolaren eta gazteriaren arloko antolamendua eta jarduerak	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI)
Nafarroako Kirolaren Institutua (NKI)	Kirolaren arloko antolamendua eta jarduerak	Kirolaren eta gazteriaren arloko antolamendua eta jarduerak	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI)
Nafarroako Larrialdietako Agentzia	-Babes zibileko zerbitzuak kudeatu eta koordinatzea -Larrialdietako eta babes zibileko planetan aurreikusitako beste larrialdi-baliabide batzuen kudeaketa eta koordinazioa.	-Babes zibileko zerbitzuak kudeatu eta koordinatzea -Larrialdietako eta babes zibileko planetan aurreikusitako beste larrialdi-baliabide batzuen kudeaketa eta koordinazioa.	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

Azkenetako Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren eginkizunak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berak hartu ditu bere gain, eta gauza bera gertatzen da ezeztatu diren erakunde autonomoen eginkizunekin, horiek hainbat departamentuk eta erakunde autonomo batek hartu baitituzte beren gain.

- Enpresen sektore publikoa

Honako hau da jarduera guztien multzokatzea, antolatze-prozesuen aurretik eta gero:

Berrantolaketa-prozesuen aurretik existitzen ziren eta ehuneko 50etik gorako zuzeneko partaidetza zegoeneko sozietateak	
Berrantolaketaren aurreko jarduera ekonomikoak	Berrantolaketaren ondorengo jarduera ekonomikoak
Lurzorua eta etxebizitza	Lurzorua eta etxebizitza
Garraioa eta logistika	Lurzoruan eta etxebizitzan sartzen da
Nekazaritza-elikagaiak	Nekazaritza-elikagaiak
Ingurumena	Ingurumena
Tokiko azpiegiturak	Tokiko azpiegiturak
Kultur espazioak	Aisiako eta kiroleko azpiegitura arloz arlokoetan sartzen da
Aisiako eta kiroleko azpiegitura arloz arlokoak	Azpiegitura tematikoak, kulturakoak, aisiakoak eta kirolekoak
Hezkuntza eta talentua	Hezkuntza eta talentua
Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Berrikuntza eta ekintzaileak	Berrikuntza eta ekintzaileak
Katastroa, kartografia eta lurralde-informazioko sistemak	Katastroa, kartografia eta lurralde-informazioko sistemak
Sustapen ekonomikoa eta finantzaketa	Sustapen ekonomikoa eta finantzaketa

¹⁴ Gaur egun, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

¹⁵ Gaur egun, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua

Berrantolaketa-prozesuen aurretik existitzen ziren eta ehuneko 50etik gorako zeharkako partaidetza zegoeneko sozietateak	
Berrantolaketaren aurreko jarduera ekonomikoak	Berrantolaketaren ondorengo jarduera ekonomikoak
Enpresak sustatu eta bultzatzea	Enpresak sustatu eta bultzatzea
Gatza eta haren deribatuak sortu, prestatu eta merkaturatzea	Gatza eta haren deribatuak sortu, prestatu eta merkaturatzea
Abonu mineralak eta potasio- eta sodio-gatzetatik deribatutako produktuak	Abonu mineralak eta potasio- eta sodio-gatzetatik deribatutako produktuak
Higiezinen sustapena, efizientzia energetikoko irizpideekin	Higiezinen sustapena, efizientzia energetikoko irizpideekin
Ibilgailuen eta trenen karrozeria	Desagertu zen enpresa-taldea saltzearen ondorioz
Oinetakoak egin eta merkaturatzea	Desagertu zen sozietatea azkendu zelako

Antolaketaren aurretik zeuden sozietateek aurrera eramaten zituzten jarduerak sozietate xurgatzaileetan jarraitzen dute edo haietan integratu dira, bi jardueraren kasuan izan ezik; horietan, izan ere, sozietateak saldu eta azkendu egin dira, aurreko taulan ageri den bezala.

- Fundazioen sektore publikoa

Entitatea	Berrantolaketaren aurreko eginkizunak	Berrantolaketaren ondorengo eginkizunak	Entitatea
Energia Berriztagarrien arloko prestakuntza	Langileen lanbide-heziketa, energia berriztagarrien sektorea garatzeko.	Langileen lanbide-heziketa, energia berriztagarrien sektorea garatzeko.	Ikastetxe pribatua
Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua	Nafarroako ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorea sustatzea	Nafarroako ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorea sustatzea	Vianako Printzea Era-kundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia
Navarra para la Excelencia	Nafarroako enpresetan – publikoetan zein pribatuetan–kalitate-zerbitzuak sustatzea.	Nafarroako enpresetan – publikoetan zein pribatuetan–kalitate-zerbitzuak sustatzea.	Fundazio pribatua.

Fundazio baten jarduerak Foru Komunitateko Administrazioak berak hartu ditu bere gain, eta gainerako bien kasuan, sektore pribatuak.

V.4. BERRANTOLAKETA-PLANEN BETETZEA

V.4.1. Administrazioaren eta fundazioen sektore publikoa

Ez dago jasota Administrazioaren sektore publikoan berrantolaketa-plan bat dagoenik, 1/2010 eta 5/2012 esparru-akordioetan hartutako eta haietatik heldutako konpromisoetan jasotakoaren aurka; planik ez izate horrek ez du aukerarik ematen ez helburuak ez azkendutako entitateak desagerraraztearen ondoriozko eraginak egiaztatzeko.

Fundazioen sektore publikoan, 2013-2015 Ekintza Plana onetsi zen. Hartan, helburu gisa ezarri zen fundazioen kopurua gutxitzea, sektore publikoaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko. Hala eta guztiz ere, ez zen helburu kuantifikagarririk ezarri, ez eta eragin ekonomikoaren analisirik ere, haien egiaztatzea bete ahal izateko.

V.4.2. Enpresen sektore publikoa

V.4.2.1 Enpresa publikoen sektorea antolatu eta berregituratzeko lehen plana

Nafarroan enpresen sektore publikoaren antolaketa berriak, planak planteatzen duenak, bost helburu ezarri zituen.

Lehenengo plan hori praktikan jarri ondoren, honako jarduketa hauek egiaztatu ahal izan dira:

		Neurria ezartzea
1. helburua	- Sozietateen kopuruaren murrizte justifikatua, eraginkortasun eta efizientzia handiagoak bilatze aldera. Proposatzen da Korporazioaren menpean 38 sozietate egotetik 13 sozietate egotera pasatzea.	BAI
2. helburua	- Behar diren sozietateak lerrokatzea eta taldekatzea Nafarroako Gobernuak garatu beharreko politika sektorialen arabera.	BAI
3. helburua	- Enpresen sektore publikoan kostuak gutxitzeko plan jarraitu bati ekitea, epe laburrean eta epe luzean.	BAI
4. helburua	- NEKPk optimizatzea eta homogeneizatzea berregituraketa egin ondorengo sozietate publiko guztien zeharkako funtzionamendua.	BAI
5. helburua	- Enpresa publikoen kudeaketarekin lotutako baliabide eta eragiketak gutxitzea, zentralizatzea eta koordinatzea.	BAI

2010-2013 aldian kostuak aurrezteko estrategiak helburu gisa ezarri zuen 28 milioi euro inguru gutxiago gastatzea.

Neurriak aplikatuzetik heldutako emaitzak honako hauek izan dira:

- Sozietateak berrantolatzeko prozesua eta egiturazko eraginak:

	2010	2013	Aldea	Aldea (%)
Sozietate kopurua	39	17 ¹⁶	-22	-56
Administrazio kontseiluetako kideen kopurua	334	184	-150	-45
Kudeatzaileen kopurua	30	14	-16	-53
Batez besteko langile kopurua	1.283	1.046	-237	-18

- Langileriaren arloko kostuak eta kostu operatiboak gutxitzeko prozesua

(euroak, milakotan)

	2011	2012	Guztira	Jarritako helburua	Betetzea (%)
I. berrantolaketa-planaren berariazko aurrezkiak	5.714	10.723	16.437	27.879	59

¹⁶ Bat datoz zuzeneko partaidetzako 13 sozietateekin eta zeharkako partaidetzako lau sozietateekin.

V.4.2.2. Enpresa publikoen sektorea antolatu eta berregituratzeko bigarren plana

Aurreikusitako helburuak bost zutabetan biltzen dira; helburuak lortzeko hainbat neurri aurreikusitako dira horietan. Honako hau da egindako egiaztapenen emaitza:

1. zutabea	Berregituratzea balioa sortzeko eta EBITDA hobetzeko (etekina interesen, balio-galeraren, amortizazioaren eta zergen gaintik)	Neurria ezartzea
Enpresa-sektorea	SODENA eta CEIN integratzea kudeaketa-unitate bakar batean	BAI
Lehen sektorea	INTIAren bitartez	BAI
Ingurumenaren sektorea	NILSA eta GAN integratzea kudeaketa-unitate bakar batean	BAI
Aktibo higiezin eta etxebizitza-politiken sektorea	NASUVINSA eta ANL fusioatzea	BAI
Aisialdiaren eta kulturaren sektorea	NDO eta ENDESA fusioatzea	BAI
Sektore teknologikoa	TRACASA eta NASERTIC enpresek egiten dute, eta beren egitura berezituari eutsiko diote	BAI
	Los Arcosko Zirkuituaren kudeaketa kanpoan kontratatzea	BAI
2. zutabea	EBITDA hobetzea, kostu operatiboaren kudeaketa optimizatuz	
	Kostuen analisirako eta kudeaketarako metodo bat garatzea	BAI
3. zutabea	Aktibo higiezinak saltzea eta likidezia lortzea	
	Inolako likidezirik ez zuten higiezin salmentarako plan bat garatzea	BAI
4. zutabea	Zorren berregituratzea eta parte hartutako zein beste aktibo batzuen salmenta, likidezia handiagoa lortzeko.	
	Korporazioko enpresek zuzeneko edo zeharkako parte-hartzea duteneko sozietateen analisia.	BAI
	Helburua da parte hartutako sozietateak saltzea, zorra gutxitzeko	BAI
5. zutabea	Antolamenduaren eta kulturaren aldaketa	
	Irizpideak eta jarraibideak ezartzea baliabideak hobeki antolatzeko eta optimizatzeko, soldata-eskalak eta lan-baldintzak homogeneizatzeko, eta kudeatzaileei helburuen araberako ordainsariak ezartzea.	BAI

Egin den berrikuspenaren ondorioz, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Egiturazko aldaketak eta behin betiko aldeak ondoko taulan ageri direnak dira:

	2010	2016	2016/10 aldea	Aldea (%)
Sozietate kopurua	39	17	-22	-56
Administrazio kontseiluak kideen kopurua	334	97	-237	-71
Kudeatzaileen kopurua	30	10	-20	-67
Batez besteko langile kopurua	1.283	1.059	-224	-17

• Bigarren plan horren datu ekonomikoak, txosteneko V.2 atalean egin dugun analisitik ondorioztatzen direnak eta bost zutabeetan hartutako neurrien multzoan eragina dutenak, honako hauek dira:

(euroak, milakotan)

	2013	2014	2015	Guztira	Bost zutabeetan jarritako helburua	Betetzea (%)
II. berrantolaketa-planaren berarriazko aurrezkiak	8.966	5.909	3.353	18.228	14.970	122

- EBITDAren bilakaera honako hau izan da:

(euroak, milakotan)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
EBITDA	809	-15.386	-35.909	14.555	35.934	975	9.188

Ikusi da bilakaera positibo bat egon dela, zeren eta EBITDA 2010ean 0,81 milioikoa izatetik 2016an 9,19 milioikoa izatera pasa baita. Hala eta guztiz ere, txostenean egiaztatutako kostuen aurrezkiak EBITDAn inpaktua badu ere, magnitude hori faktore askok baldintzatzen dute (SO-DENAK parte hartutako enpisetako kontabilitate-narriatzeak, sozietate publikoen jarduerak homogeneoak ez izatea eta higiezinaren merkatuaren bilakaera, besteak beste), eta horiek interferentzia egiten dute bilakaeran.

- NASUVINSA eta CAT sozietate publikoek aktiboen salmentarako plan bat garatu dute; horrek, 2013-2015 aldian 66,08 milioi euroko diru-sarrerak ekarri ditu guztira.

35 eragiketen lagin bat berrikusi dugu –zazpi milioi euroko bolumen ekonomikoa eta egindako eragiketen ehuneko 11 egiten dute–, eta egindako egiaztapenen emaitza arrazoizkoa da.

Likidezia lortzeko salmenta-planaren betearaztea honako hau da NEPKren datuen arabera:

(euroak, milakotan)

Diru-sarrerak, guztira	2013	2014	2015	Guztira
Helburua	23.153	34.531	32.219	89.903
Egiazkoa	16.544	28.542	21.001	66.088
Aldea	-6.608	-5.988	-11.218	-23.815

Hau da, betetze-mailak aurreikuspenen ehuneko 74 egiten du.

- Zorren berregituratzearen helburuari dagokionez, eta berrikusitako datuen arabera, honako taula honetan ageri da haren bilakaera:

(euroak, milakotan)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2016/10 aldea	Aldea (%)
Zorra, guztira *	323.115	295.629	276.924	260.451	104.645	73.115	56.449	-266.666	-83

*Datu hauetan ez da kontuan hartzen interesen aldizkakotasuna eta Europako Inbertsio Bankuen finantzaketa.

2014ko ekitaldian, zorraren gutxitze handiago bat gertatu da, zeren eta Iberdrolaren akzioen salmentari dagokion diru-sarrera jaso baita¹⁷.

Azken batean, gure iritziz enpresen sektore publikoa berrantolatze bi prozesuak helburu zehatzak jasotzen zituen plangintza baten arabera gauzatu dira, eta, oro har, helburu horiek kuantifikagarriak eta egiaztagarriak dira.

Horien egiaztatzeak aukera ematen du ondorioztatzeko ezen, oro har, arrazoiz bete direla programatutako aldietan aurreikusitako helburuak.

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2018ko urriaren 16an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

¹⁷ Kontuen Ganberaren 2016ko urtarrileko txostena

1. ERANSKINA. ESPARRU JURIDIKOA

ESTATUKO ARAUDIA

- Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bitartez onesten baita Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen testu bategina.
- Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- HAP/2015/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzeko.

AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

- 14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzkoa.
- 15/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 14/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ondareari buruzkoa.
- 8/2009 Foru Legea, ekainaren 18koa, Enpresa Korporazio Publikoa SMP sortzeari buruzkoa.
- Enpresen sektore publikoa antolatzeko eta berregituratzeko I. Plana, Nafarroako Gobernuak 2010eko abenduaren 20an onetsia.
- 15/2011 Foru Legea, urriaren 21ekoa, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseilua sortzen duena, indargabetzen duena.
- 142/2011 Foru Dekretua, abuztuaren 24koa, Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa erakunde autonomoa iraungitzen duena
- 35/2012 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, Gizarte Politiketako Departamentuaren oinarrizko egitura organikoa ezartzen duena, eta 73/2012 Foru Dekretua, uztailaren 25ekoa, Gizarte Politiketako Departamentuaren oinarrizko egitura organikoa ezartzen duena.
- 36/2012 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren Estatutuak onesten dituena.
- 68/2012 Foru Dekretua, uztailaren 25ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua erakunde autonomoa iraungitzen duena.
- Nafarroako Gobernuaren 2013ko maiatzaren 8ko Ekintza Plana, zeinaren bidez Administrazioa erreformatzeko hainbat neurri erabaki ziren, egitura gutxitzeko eta efizientzia handitzeko.
- Enpresen sektore publikoa berrantolatzeko II. Plana, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2013ko maiatzaren 13an onetsia.
- Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2014ko martxoaren 20koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren fundazio jakin batzuen estatutuak azkentzeko edo aldatzeko prozeduren hasiera agindu baitzen.
- 197/2015 Foru Dekretua, irailaren 9koa, Nafarroako Larrialdietako Agentzia erakunde autonomoa iraungitzen duena.

2. ERANSKINA. ENTE ETA ERAKUNDE PUBLIKOEN ZERRENDA ETA HAIEN BILAKAERA

Ente publikoak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Nafarroako Kontseilua	x	x	x	x	x	x	x
Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua	x						
Guztira	2	1	1	1	1	1	1

Erakunde autonomoak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Nafarroako Larrialdietako Agentzia (NLA)	X	X	X	X	X		
Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa (EVENA)	X						
Nafarroako Zerga Ogasuna (NZO)	X	X	X	X	X	X	X
Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI)	X	X					
Nafarroako Mendekotasun Agentzia (2015etik, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentzia)	X	X	X	X	X	X	X
Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua (NKI)	X	X					
Nafarroako Gazteriaren Institutua (NGI)	X	X					
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI)			X	X	X	X	X
Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua (2015etik, Nafarroako Berdintasunerako Institutua, NBI)	X	X	X	X	X	X	X
Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua (E-ENI)	X	X	X	X	X	X	X
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (NOPLOI)	X	X	X	X	X	X	X
Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua	X	X	X	X	X	X	X
Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ)	X	X	X	X	X	X	X
Guztira	12	11	9	9	9	8	8

3. ERANSKINA. SOZETATE XURGATUEN ETA XURGATZAILEEN ZERRENDA

A. Lehenengo berrantolatze-prozesuan sortutako fusioak			
1. NEKPk partaidetza zuzena eta gehiengo duen sozietate publikoak, berregituratu ondoren			
Ondoriozko enpresa publikoa	Sozietate xurgatzailea/berria	Xurgatutako sozietateak	Jarduera ekonomikoa
1. Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASUVINSA)	Viviendas de Navarra SA (VINSA)	Navarra de Suelo Residencial SA (NASURSA) Navarra de Suelo Industrial SA (NASUINSA)	Lurzorua eta etxebizitza
2. Agentzia. Navarra del Transporte y Logística SA (ANL)	Ciudad del Transporte Pamplona SA (CTPSA)	Agencia Navarra Transporte y Logística SA (ANL)	Garraioa eta logistika
3. Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	Aldaketarik ez egungo egoeraren gainean		Nekazaritza-elikagaiak
4. Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (INTIA)	Riegos del Canal de Navarra SA (RICAN)	Instituto Calidad Agroalimentaria de Navarra SA (ICAN) Instituto Técnico y de Gestión Agrícola SA (ITGA) Instituto Técnico y de Gestión Ganadero SA (ITGG) Riegos de Navarra SA	Nekazaritza-elikagaiak
5. Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra SA (VIVEROS)	Navarra de Medio Ambiente Industrial SA (NAMAINSA) Echauri Forestal SL	Ingurumena
6. Navarra de Infraestructuras Locales SA (NILSA)	Aldaketarik ez egungo egoeraren gainean		Tokiko azpiegiturak
7. Empresa Navarra de Espacios Culturales SA (ENECSA)	Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra SA (BALUARTE)	Planetario de Pamplona SA	Kultur espazioak
8. Navarra Deporte y Ocio SL (NDO)	Circuito Los Arcos SL	Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra SA (SPRIN) Territorio Roncalia SL	Aisiako eta kiroleko azpiegitura arloz arlokoak
9. Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas SA (CNAI)	Aldaketarik ez egungo egoeraren gainean		Hezkuntza eta talentua
10. Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC)	Navarra de Servicios SA (NASERSA)	Producción Informática de Navarra SL (PIN) Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra SA (OPNATEL)	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
11. Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra SA	Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra SA (CEIN) Agencia Navarra de Innovación y Tecnología SA (ANAIN) Navarra de Verificaciones Legales SA (NAVELSA)	Berrikuntza eta ekintzaileak
12. Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	Trabajos Catastrales SA (TRACASA)	Gestión de Deudas SA (GEDESA)	Katastroa, kartografia eta lurralde-informazioko sistemak
13. Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (SODENA)	Sociedad de Desarrollo de Navarra SL	Sociedad de Desarrollo de Navarra SA (SODENA) Navarra de Financiación y Control SA (NAFINCO) Navarra de Gestión para la Administración SA (NGA) Fondo Jóvenes Empresarios Navarros SA	Sustapen ekonomikoa eta finantzaketa

B. Bigarren berrantolatze-prozesuan sortutako fusioak			
Ondoriozko enpresa publikoa	Sozietate xurgatzailea/berria	Xurgatutako sozietateak	Jarduera ekonomikoa
Navarra Infraestructuras, Cultura, Deporte y Ocio (NICDO)	Navarra Deporte y Ocio (NDO)	Empresa Navarra de Espacios Culturales (ENECSA)	Kultur espazioak
Navarra de Suelo y Vivienda (NASUVINSA)	Navarra de Suelo y Vivienda (NASUVINSA)	Agencia Navarra Transporte y Logística SA (ANL)	Garraioa eta logistika

4. ERANSKINA. SOZETATE PUBLIKOEN ZERRENDA ETA HAIEN BILAKAERA

Izendapena	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Agencia Navarra de Innovación y Tecnología SA	x						
Agencia Navarra del Transporte y la Logística SA	x						
Agencia Navarra del Transporte y la Logística SAU (lehen, Ciudad del Transporte SA)	x	x	x	x			
Centro Europeo de Empresas e Innovación SA	x						
Centro Europeo de Empresas e Innovación SL		x	x	x	x	x	x
Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas SA	x	x	x	x	x	x	x
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SLU	x	x	x	x	x	x	x
Corporación Pública Empresarial de Navarra SLU	x	x	x	x	x	x	x
Echauri Forestal SLU	x						
Empresa Navarra de Espacios Culturales SA (lehen, Baluarte, Palacio de Congresos y Auditoria de Navarra SA)	x	x	x				
Fondo Jóvenes Empresarios Navarros SAU	x						
Gestión Ambiental de Navarra SA	x	x	x	x	x	x	x
Gestión de Deudas SA	x						
Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra SA	x						
Instituto Técnico y de Gestión Agrícola SA	x						
Instituto Técnico y de Gestión Ganadero SA	x						
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SAU	x	x	x	x	x	x	x
Natural Climate Systems SA	x	x	x	x	x	x	x
Navarra de Financiación y Control SA	x						
Navarra de Gestión para la Administración SA	x						
Navarra de Infraestructuras Locales SA	x	x	x	x	x	x	x
Navarra de Medio Ambiente Industrial SA	x						
Navarra de Servicios y Tecnologías SA.	x	x	x	x	x	x	x
Navarra de Suelo Industrial SA	x						
Navarra de Suelo Residencial SA	x						
Navarra de Suelo y Vivienda SAU (lehen, Viviendas de Navarra SA)	x	x	x	x	x	x	x
Navarra de Verificaciones Legales SA	x						
Navarra Deporte y Ocio SL	x	x	x	x	x	x	x
Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra SA	x						
Planetario de Pamplona SA	x						
Potasas de Subiza SAU	x	x	x	x	x	x	x
Producción Informática de Navarra SL	x						
Riegos De Navarra SA	x						
Salinas de Navarra SA	x	x	x	x	x	x	x
Sociedad de Desarrollo de Navarra SA	x						
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL		x	x	x	x	x	x
Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra SA	x						
Start Up Capital Navarra SA	x	x	x	x	x	x	x
Subgrupo Burnizko SA		x	x				
Territorio Roncalia SL	x						
Trabajos Instrumental SL							x
Trabajos Catastrales SA	x	x	x	x	x	x	x
Tuckland Footwear SL	X	X					
Guztira	39	20	19	17	16	16	17

5. ERANSKINA. FUNDAZIO PUBLIKOEN ZERRENDA ETA HAIEN BILAKAERA

Fundazio publikoak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Baluarte Fundazioa	X	X	X	X	X	X	X
Fundación para la Formación en Energías Renovables	X	X	X	X	X		
Fundación Miguel Servet	X	X	X	X	X	X	X
Fundación Navarra para la Excelencia	X	X	X	X	X		
Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa.	X	X	X	X	X	X	X
Fundación para la Tutela de las Personas Adultas	X	X	X	X	X	X	X
Fundación Instituto Navarro Artes Audiovisuales y Cinematografía	X	X	X	X			
Guztira	7	7	7	7	6	4	4